

# txintxarri



## Udara ahaztezina aurretik

Arkaitz Naya eta Maria Morchon harrera gurasoen testigantzak irakurgai / 4

TXINTXARRI

## Merkatarien kezka

Merkatal gune eta saltoki handiek herriko merkataritzan duten eragina aztertu du TXINTXARRI / 8-9

Sasoeta-Zumaburu ikastetxeko egoerari bueltaka aritu dira udal ordezkariak udalbatzarrean / 2

Urrea irabazi du Eneritz Bustok 100 metro hesidunetan junior mailako Espainiako Txapelketan / 12



**50€ eta 75€-ko erosketa txkeak\***

**Whirlpool BSNF9452OX hozkailuaren erosketarekin, 50€-ko erosketa txkeka eta barazki otar bat opari!**

*\*Galdetu dendan gainerako zein produkturekin eskuratu dezakezun erosketa txkeka!*

600 857 586  
www.electricidadarregui.com  
tienda.electricidadarregui.com (on-line denda)

Kale Nagusia 39 - LASARTE-ORIA - Tel. 943 36 10 80 - Tel/Faxa: 943 37 25 21



**ADURIZ DE LASARTE, S.A.**  
BERTAN EKOITZITAKO KALITATEZKO PRODUKTUAK

- ✓ Odolkiak
- ✓ Solomo antzutua
- ✓ Etxeko txorizoa
- ✓ Basurde burua
- ✓ Txistorra
- ✓ Solomoa baratxuritan
- ✓ Tripakiak, saltxitxak...
- ✓ Baserri pateaa

Loidi Barren kalea 3, 20160 Lasarte-Oria  
Tel: 943 36 12 78 - 943 36 16 55 - 943 36 24 51



Udalbatzarrako kideak, joan den astearteko bilkuran. TXINTXARRI

## Zumaburuko auzian katramilatuta

EH Bilduk mozio bat aurkeztu du, Hezkuntza saileko Gipuzkoako ordezkariaren dimisioa eskatzeko, baina beste ezein alderdik ez du babestu. Leroy Merlinen gaia ere eztabaidatu dute batzarrean. Zataraingo obrak salatu ditu bizilagun talde batek.

### Adrian Garcia

Zumaburu-Sasoeta ikastetxeko haurren egoera berriz ere present egon da Lasarte-Oriako Udalbatzarrean. Joan den hilabetean, gurasoek beraiek salatu zuten udalbatzarrean lanen ondorioz haurrek jasan behar duten egoera. Orduan aho batez bozkatu zuten udal ordezkariak, eta Hezkuntza sailari konponbide

bat eskatu zioten, gurasoen eskakizunekin bat eginda. Baina azkar alendu da orduko adostasuna. EH Bilduk mozio bat aurkeztu du, Gema Gonzalez de Txabarriren, Gipuzkoako Hezkuntza ordezkariaren, dimisioa eskatzeko. Bakarrik geratu da, ordea: Ahal Du Lasarte-Oria abstenituta, EAJren eta PSE-EEren aurkako botoekin

bertan behera geratu da iniziatiba.

Giroa erabat gaiztotu du Zumaburuko haurren gaiak, eta alderdiek elkarri leporatu diete etekin politikoa atera nahi izatea. Zumaburuko lanak direla eta, haurrak bi zentrotan banandu dituzte, eta, gurasoek salatu dutenez, behin-behinean egokitu den azpiegitura hori kaltegarria

da haurren hezkuntzarako eta garapen sozialerako, segurtasunaren aldetik arriskutsua izatearekin batera.

EH Bilduk salatu du Gonzalez de Txabarriren "utzikeria". Ondoko arrazoiak eman ditu: gurasoen gutunei ez erantzutea eta lekuz kanpoko erantzunak ematea, besteak beste.

Estixu Alkorta EAJko ordezkariak kargu hartu die Ahal Du Lasarte-Oriari eta EH Bilduri. Jeltzaleak salatu duenez, alderdi horiek ez dituzte konponbideak proposatu, eta soilik EAJri erasotzeko erabili dute auzia. Puntuz puntuz zerrendatu ditu Alkortak Zumaburuko ikastetxeko egituraren arazoak topatu zituztenetik egindako pausoak, atzerapen burokratikorik egon ez dela frogatzeko.

Ahal Du Lasarte-Oriak ere ez du mozia babestu, "nahiz eta ados egon dimisioa eskatzearekin". Arkaitz Naya bozeramaileak azaldu duenez, Burunzpeko gurasoekin hitz egin dute, eta uste dute dimisioa eskatzea kaltegarria izan daitekeela. "Bilerak egin dituzte giro onean, eta gauzka ari dira aurrera ateratzen".

Jesus Zaballos alkateak ere azalpen bat eman du gai honi buruz: "Burunzpeko gurasoek ez dute mozia eskatu. Hala nahi balute, bozeramaileen batzordearen bidez aurkeztuko lukete mozio bat, aurrekoan egin zuten bezala".

### PP, lekuz kanpo

Bestetik, PPko zinegotziak mozio batean proposatu du ETaren indarkeria gaitzestea, Miguel Angel Blancoren hilketaren urtemuga aprobetxatuta. Udaltzarrak, ordea, mozia baztertu du, gai horiek Bizikidetzako Mahaian jorratzen dituztelako.

Hain justu, PP da mahaia horretan ez dagoen alderdi bakarra.

Beste eztabaida iturri asko ere izan dituzte udal ordezkariak. Horietako bat da Leroy Merlin Frantziako multinazionala herriko lurretan ezartzeko aukera. Teresategi eremua eta Donostiako Errekalde II.a eremua bateragarriak egiteko planak onartu ditu udalbatzarrak, EH Bilduren "ezezko borobilarekin" eta Lasarte-Oria Ahal Du-ren abstentzioarekin. Pauso hori ezinbestekoa da gero bertan eraiki ahal izateko, lurren %95 Lasarte-Oriakoak izan arren, %5 Donostiako baita.

EAJri eta PSE-EEri leporatu dio EH Bilduk merkataritza gunea eraikitzeko erraztasunak ematea, eta herriko denda txikiak arriskuan jartzea. Agustin Valdivia Hirigintza zinegotziak gogor egin du Barrio bozeramailearen aurka. "Zer nahiago duzu, Donostiako lurretan eraikitzea eta eragin kaltegarriak berdin-berdin jasatea?". EAJko Jon Antxordokik nabarmendu duenez, "lanpostu mordoa" ekarriko du multinazionalak herrira.

### Zataraingo obrak

Herritarrek ere aukera baliatu dute udalbatzarrean parte hartzeko, eta Zataraingo obrak sortutako ezinegona plazaratu dute. San Frantziskoko bizilagun talde batek salatu duenez, uralita erabili dute lanetan, produktu kutsakorren trataerak eskatzen duen neurririk hartu gabe. Horretaz gain, ohartarazi dute transformadore handi bat etxebizitzetatik gertuegi dagoela. Udalak eraikuntza enpresaren txosten bat aurkeztu du, baina ez ditu bizilagunak asebate; "iruzurtzat" hartu dute.



Azoka solidarioa Okendo plazan. TXINTXARRI

### Kultura ez delako hondakina

Esklusio ekonomikoan dauden pertsonen kultura eta ingurugiroaren babesaren bidez laguntzea. Horixe da Kaleko elkartasun eta kultur elkartearen helburua. Horretarako, liburu, CD eta binilozko diskoen berrerabilpena sustatu nahi dute, herri eta hiri desberdinetan azokak jarritz. Lasarte-Orian jarri zuten azoka aurreko astean, Okendo plazan.

### Edukiontzi marroira zaborra botatzeko poltsak banatuko ditu udalak

Zabor poltsa biodegradagarriak saltzeko makina ezarri behar zuten, baina atzerapenarekin dabil, eta oraindik jartzekoa dute. Hori dela eta, egitasmo hori martxan jarri bitartean, hondakin organikoak sailkatzeko poltsak banatuko ditu udalak.

Asteazkenetan egingo dute banaketa. Hain zuzen, azoka eguna eta lekua baliatuko dute horretarako. Azokaren gunean,

09:00etatik 13:00etara banatuko dute.

Udaletik jakitera eman dutenez, izena emandako etxebizitza bakoitzeko 50 poltsa banatuko dituzte (bi pakete), eta horiek jasotzeko, txartela eraman beharko dute erabiltzaileek. Horrekin batera, NAN zenbakia eta izen-abizenak zein bizilekuaren helbidea jakinarazi beharko dituzte.



Edukiontzi marroiaren kanpaina. UDALA

# Kultura kalera aterako da udan Lasarte-Orian

Kontzertuak, zinema, auzoetako festak... Udan kulturaz aire librean gozatzeko eskaintza prestatu du udalak. Kultur Kale Zikloak astebururo kontzertuak eskainiko ditu hainbat auzotan. Santa Ana jaietz gainera, betiko artisautza azoka egingo dute.

## Txintxarri

Uda iritsi da Lasarte-Oriara, eta urtaro aldaketarekin batera ailegatu da kalean kulturaz gozatzeko eskaintza. Uztailean oportetara joan ezin duenak ere izango du zer egin herrian: kontzertuak kalean, zinema, auzoetako jaiak eta beste ekitaldiak antolatu dituzte. Beste urteetan bezala, Kultur Kale Zikloak musika eramango du herriko hainbat txokotara: sei auzotan beste horrenbeste kontzertu egingo dituzte.

Baina, Euskal Herrian uda izanik ere, eguraldia ez da beti lagun. Horixe gertatu zitzaion joan den astean herriko Everlevel Band taldeari; Tximistarreta parkean ziren jotzekoak, baina atzeratu egin zuten ekitaldia, euriarengatik. Zehazteko dute data berria. Edonola ere, irailaren lehen asteburura arte izango da hainbat estilotako musikaz kalean eta doan gozatzeko aukera.

Badira urte batzuk Kultur Kale Zikloa antolatzen dutela; 2012. urtetik, hain justu. Helburu argia du ekimenak: kultura aire librean eskaini nahi dute, doan. Kultura "deszentralizatzeko" modua da, udalaren esanetan. "Auzo guztietara zabaldu nahi dugu kultura, Okendo plazaz gain beste lekuetara ere eramateko", adierazi du Jesus Zaballos alkateak.

Xpressionk elkartearekin elkarlanean antolatu du zikloa udalak. Txus Alonso Jaietako zinegotziaren arabera, 4.000 euroko aurrekontua izango du aurten.

Musikaz gainera, antzerkiak eta zinemaz ere gozatzeko aukera egongo da uztailean: *Whiplash* filma emango dute Okendo plazan uztailearen 20an. Hurrengo egunean, Hortzmuga taldeak *Femmes* antzezlanaz egingo du. Bestalde, Santa Ana egunean betiko azoka egingo dute, inguruko baserriko produktuekin. Eta, nola ez, Santa Ana parodia izango da ikusgai hilaren 26an.



La Pulga eta Lagunak taldearen flamenko ikuskizuna, joan den astean. TXINTXARRI

## Udako kultur egitaraua

### Uztailaren 15a

- **20:00etan:** Wha Wha Buga Band taldea, Okendo plazan.

### Uztailaren 16a

- **12:00etan:** Miguel A. Oribe lasarteoriatarren eskultura inauguratuko dute, Oriako Karmengo jaietan.

### Uztailaren 20a

- **22:10etan:** *Whiplash* filma, jatorrizko bertsoian azpidatizkiekin, Okendo plazan.

### Uztailaren 21a

- **20:00etan:** *Femmes*, Hortzmuga Teatroaren partetik, Okendon.

### Uztailaren 22a

- **20:00etan:** Azkaiter Pelox Rockabilly Riot taldea, Zabaleta auzoan.

### Uztailaren 23a

- **10:00etan:** Santa Ana eguneko artisautza azoka tradizionala.

### Uztailaren 26a

- **22:30:** Santa Ana parodia.

### Uztailaren 29a

- **20:00etan:** Latitud 43 taldea, Zumaburu auzoan.

### Uztailaren 31

- **20:00etan:** Lee Junior taldea, Basaundiko festetan.



NEURE KABUZ

MAIDER SEGUOLA

## TSST

Orain aste batzuk Gipuzkoako ondare industrialaren inguruan aritu ginen arkitekto batekin solasean. Elkarrizketa osatzeko gure lurraldeko dozena erdi bat eraikuntzaren erreferentziak ekartzekotan geratu zen ta hara ezustekoa, nabarmendutako eraikin horietako bat gure herrikoa bertakoa zela ohartu nintzenen!

TSST autobus konpainiaren kotxerak, hain zuzen ere.

Maiz paretik pasa arren, eraikinak izan zezakeen balioaz ohartu gabe nengoen. Are gehiago, ez dakit inoiz hartu ote ditudan bost minutu garai batean autobus berdeen lo-leku izan zen tokiari behar bezala erreparatzeko ere.

Gure elkarrizketatuari ikasi nion nahikoa ezezaguna dela eraikina eta egun abandonatuta egon arren, bi bolumen oso nabarmen dituela oraindik ere: garai bateko bulegoen gunea bere beirate luzeekin eta atzeko aldean, hormigoizko egitura oso bereziarekin eraikitako espazio zabala.

Ondare arkitektonikoaren arazorik handiena, halere, erabilera galtzen dutenean etortzen da. Errazagoa da askorentzat eraikina eraitsi eta zerbait berria sortzea, dagoen horri erabilera berri bat eman eta bide batez, gure altxor bati eustea baino.

Tokiei ondo begiratzen jakiteko begirada heztea garrantzitsua da eta horretarako ezinbestekoa, jakintza. Uda partean asko kanpora joango garen honetan, seguru bateko eta besteko eraikinak bisitatuko ditugula gida turistikoetako gomendioiei men eginez. Hona proposamena: egin dezagun antzeko ariketa etxean bertan, hurbilen dugunari dagokion balioa eman diezaiogun.

## Hiru urterako ituna sinatu dute Aterpeak eta udalak

Aterpea Lasarte-Oriako merkatarien elkarteak eta udalak hiru urterako akordioa sinatu berri dute. Urtero, 11.000 euro inguru jasoko ditu elkarteak, herriko merkataritza sustatzeko helburuarekin. Alkate Jesus Zaballosek azaldu duenez, "plazerra" da Aterpearekin lan egitea. Halaber, nabarmendu du elkarteak azken urtean izan

duen igoera bazkide kopuruari dagokionez.

Lehenengo aldiz, hiru urterako kontratua sinatu dute, ohikoak diren urtebetekoen aldean. Arrazoi nagusia da bigarren eta hirugarren urteetan dirua lehenago eduki ahal izatea, hitzarmena sinatzera itxaron beharrik gabe. Aterpeako presidente Ramon Ormazabalek udalaren jarrera eta prestutasuna eskertu ditu. Halere, nabarmendu du dendariak erronka berriei aurre egin behar dietela.



**NOAOA**  
BIDAIAK

**IRAILAREN 26TIK URRIAREN 4RA**  
Noaoak gidatutako talde bidaiak.  
Lasartetik irtenda.

T.: 943 373 613 • info@noaoa.eus • Hipodromo Etorbidea 10, Lasarte-Oria



Arkaitz Naya eta bere emazteak bigarren urtez izango dute Sidahmed etxean udako hilabeteetan. TXINTXARRI

# "Esperientzia izugarri bat gozatzeko aukera eman digu Sidahmedek"

## ARKAITZ NAYA HARRERA AITA

Saharako lau haur eta Ukrainako bi ume etorri dira udako hilabeteak pasatzera. Arkaitzek eta bere emazteak bigarren urtez hartu dute parte *Oporrak bakean* programan

### Lorena Lujanbio

Dimas, Valentin, Mahmud, Mohamed-Lamn, Sidahmed eta Wahba dira uda honetan Lasarte-Orian izango ditugun lagunak. Sahara eta Ukrainatik datoz.

*Oporrak Bakean* proiektuak hiru helburu nagusi ditu: jatorrizko herrialdeetako egoera gogorretik irteteko ahalbidea ematea, osasun-azterketa egokien bitartez oneratze fisikoa lortzea. Arkaitz Naya eta bere emazteak 2016ko udan eta aurtengoan izango dute Sidahmed etxean. Hamar urte ditu eta abuztu bukaera arte egongo da Lasarte-Orian. Bi urteotan izandako bizipenak baloratuz, urtero errepikatuko luketen esperientzia bat dela diote.

### Nola izan duzue *Oporrak bakean* programaren berri? Zein izan zen lehenengo pausoa?

Duela bost edo sei urte izan genuen proiektuaren berri baina lagun baten esperientziaren bitartez hartu genuen azken erabakia. Hamar urtez ekarri dute haur bat udako hilabeteak pasatzera eta bizitakoa kontutan hartuta, guk ere pausoa emateko momentua zela erabaki genuen 2016an.

### Zein baldintza bete behar dira harrera familia izateko?

Ez da asko behar. Nire ustez garrantzitsuena denbora izatea

### "HAURREK DITUZTEN BEHAR GUZTIAK AHALIK ETA HOBEREN ERANTZUTEKO, DENBORA DA GAKOA"

da. Denbora eta egonkortasuna. Familian pertsona berri bat integratuko da eta horrek izango dituen behar guztiak ahalik eta hoberen erantzuteko, denbora da gakoa.

### Egokitzapen prozesu bat izan duzue Sidahmed etorri baina lehenago?

Elkarrizketak egiten dira haurra iritsi baina lehenago. Gure kasuan, Udaletik eta urte askoz boluntario dabilen pertsona batekin egin genuen prestakuntza. Hauek haurra etorritakoan edukiko dugun testuinguruaren berri ematen digute. Horrek asko laguntzen du haurraren egokitzapenean, batez ere lehenengo egunetan.

### Aldaketarik nabaritzen duzue Sidahmeden?

Guk bi aldaketa ikusi dizkiogu: batetik, lehenengo urtetik hona izan duena, eta, bestetik, aldaketa

handiena, etortzen diren lehenengo egunetatik, uda bukaerako azken egunetara izaten duena. Aldaketa izugarria izaten da haur hauetan. Hemen bizi duten errealitatea Saharakoarekin alderatuta, oso desberdina da, eta egokitzapen horretarako oso garrantzitsua da adibidez txokoetan egiten den lanketa eta beste umeekin harremana izatea, hori izaten baita hizkuntza ikasteko biderik hoberena. Bi aldaketa mota nabarmenduko nituzke: bata, fisikoa, eta bestea jokabidekoa. Kontuan izan behar da Saharan duten familia nukleoa oso indartsua dela, anai-arreba asko dira eta hango arauak hemengo oso desberdinak dira. Testuinguru aldutzen da eta betebeharrak ere bai. Hala ere, harrigarria da egokitzeko duten gaitasun azkarra. Sidahmedek bertara egokitzeko lana egin du baina gu ere haurrari moldatzea oso garrantzitsua dela uste dut. **Nola aldatzen du zuen udara Sidahmeden iritsierak?**

Nire emaztearekin bizi naiz eta seme-alabik ez dugunez, aldaketa handia dela esan daiteke. Hala ere, gure lanorduak koordinatu ditzakegu, eta esperientzia izugarri bat gozatzeko aukera eman digu Sidahmedek.

### Eta uda amaitzean...

Uda amaitzean, berregokitze lan bat egin behar da, dagoeneko haurraren bizitzera ohituta izaten garelako. Sentipen gazi-gozoa izaten dugu Sidahmeden

agurrari; batetik pena handia, hutsune handia sentitzen dugulako. Baina bestetik, kontziente izan behar gara, udan hemen izan duen bizi kalitateak, azterketa medikoak, elikadura eta bestelakoak asko lagunduko

## "2016AN SAHARA EZAGUTU NUEN. IZUGARRIA DA HANGO EGOERA"

gutela Saharako baldintza gogorak jasateko; positiboa da beraientzat. Normalean, jatorrizko familiaren eta harrera familiaren arteko lotura bat egiten da, eta komunikazio jarraia izan ohi dugu telefonoz; argazkiak bidaltzen ditugu, audioak, etab. 2016an Sahara ezagutzeko aukera izan nuen eta izugarria da hango egoera. Sidahmeden familia ezagutu genuen eta konturatu ginen desertuko bizimoduan bizirik irautea dela erronkarik handiena. Egoera hori ikustean loritzen diren balio asko sinesgaitzak dira gure eguneroko bizitzan.

Bukatzeke, horrelako esperientzia bat bizitzeko gogoia duen edonor animatu nahiko nuke *Oporrak bakean* proiektuari buruzko informazioa eskatzera. Onura guretzat eta haurrarentzat izaten da; orainaldian, osasuntsuago bueltatzen delako bere herrira, baina baita etorkizunean ere, hemen dagoena jakiteak beraien egoera aldatzeko grina esnatu dezakeelako.

Jarraitu irakurtzen txintxarri.eus-en Maria Morchon harrera amari egindako elkarrizketa.



Maria Morchon eta bere familiak bigarren udaz izango dute hamar urteko Mohamed etxean. "Uda bukatzean Mohamed pozik doala ikusteak agurraren samina arintzen du. Harrera familia guztien desioa da *Oporrak bakean* programa bezalakoak behar ez izatea etorkizunean, eta beste modu batetara elkartu ahal izatea".



Txokotako gazteak udal ordezkariekin batera, Gambo plazan margotutako bankuaren aurrean. TXINTXARRI

# Aniztasunaren alde koloreztatu dute bankua

Udako txokoetako gaztetxo lasarteoriarrak, zenbait ekintzatan parte hartzen ari dira, eta, horien artean, Gehitu elkartearekin batera, ortzadarraren koloreekin bankua margotu zuten asteartean. Asteazkenean, berriz, sukaldaritzan aritu ziren

## Maddi Noriega

Gambo plazak badu koloreztatutako laugarren eserlekua. Asteartean margotu zuten txokotako gazte lasarteoriarrak.

Goizeko saioarekin hasi, eta Gehiturekin -Euskal Herriko lesbiana, gay, transexual eta bisexualen elkarte- batera, aniztasun afektiboa lantzeko zenbait tailerretan parte hartu zuten.

Familia eredu ezberdinak aztertu zituzten puzzle joko baten bitartez, eta, horiekin ipuina osatu eta taldekideei kontatzen aritu ziren, besteak beste goizean.

Horien ostean, egunarekin amaitu aurretik, Gambo plazara gerturatu ziren bertako laugarren bankua margotzeko.

Goizeko 11:00etan izan zen hitzordua, eta, ordurako,

gaztetxoen zai ziren Jesus Zaballos alkatea, eta udal gobernu taldeko hainbat alderdikide.

Horrela, udaleko margolariaren laguntzaz, ortzadarraren kolore guztiekin margotu zuten plazako laugarren bankua gaztetxoek.

Sei kolore erabili zituzten horretarako, baina ez edozein. Aniztasunaren alde, homofobiaren kontra, ortzadarraren



Jaki ezberdinak kozinatu zituzten txokotako herritar gazteek. TXINTXARRI

## Lasarte-Oriako sukaldari gazteak

Asteazkenean, berriz, herriko elkarte gastronomikoetako sukaldeetan aritu ziren Lasarte-Oriako gazteak.

Arrautzak, esnea eta azukrea, hirina eta gurina prest, behar bezalako nahasketa egin, eta krepak sukaldatu zituzten.

Arduradunen laguntzarekin, txandaka aritu ziren gazteak jaki gozoa prestatzen, eta, behin sukaldatuta, marmeladarekin edo txokolatearekin bete, eta hamaiketako ederraz gozatu ahal izan zuten.

Gaur ere herriko merkatariarekin batera arituko dira gaztetxoak. Aterpearekin elkarlanean antolatutako tailerrak egingo dituzte zenbait establezimenduetan.

koloreekin apaindu zuten Gambo plazako laugarren eserlekua. Gorri kolorearekin hasi, laranjaarekin eta horiarekin gero, berde laugarren, eta urdina eta morearekin amaitu zuten bankua margotzeaz gaztetxoak.

Ekintzak egiten ari ziren bitartean, udal gobernu taldeko kide Jesus Zaballos, Lurdes Acevedo, Chus Alonso eta Maite Igleziaden animoak ere jaso zituzten. Amaitu aurretik, ortzadarraren bandera eskuan hartuta, talde argazkia atera zuten

margolari gaztetxoek. Elkarrekin aniztasuna eta elkarlana lantzeko antolatu dituzte aipatu ekintzak, eta datozen egunetan ere beste hainbat ekintza izango dira.

## ANIZTASUNA LANTZEKO HAINBAT TAILER EGIN DITUZTE GAZTEEK, GEHITU ELKARTEAREKIN BATERA

## Gidari eta bidaiarien segurtasuna hobetzeko neurriak

TSST enpresako langileek, LAB sindikatuarekin batera, agerraldia egin zuten segurtasun neurri ezak salatzeke

### Txintxarri

Iragan ostiralean Irurako autobus geltokian gertatutako istripuak alarma piztu du gidari eta bidaiarien artean.

Gertaeraren aurrean, geldialdi batzuen "arriskuaz" jabe zirela

azaldu dute TSSTko langileek astelehenean goizean egindako agerraldian. "Urteak dira aldundiari eta beste arduradun batzuei arriskuez ohartarazi eta neurriak har zitzatela galdegin" zutela, LAB sindikatuko kideek

adierazi dutenaren arabera. Salatu dute "ez dela ezer egin arazoa konpontzeko" eta, beraz, Irurako istripua "ez dela kasualitatea" izan.

Agerraldian bildutako LAB sindikatuko kideen arabera, istripua pasa eta ondoren hartutako neurrietan TSST enpresako "langileak ez dituztela aintzat hartu". Hori dela eta, salatu dute "gezurra dela hainbat hedabidetan agintari eta arduradun batzuek esandakoa".



TSST-ko langileak astelehenean egindako elkarretaratzean. TXINTXARRI

# 83 establezimendu “Belarriprest”

Herriko “Belarriprestak” eta “Ahobiziak” inoiz baino hurbilago daude.

2016ko Euskararen Maratoian hasi ziren herriko establezimenduetako Belarriprestak eta herritar Ahobizi zein Belarriprestak, elkarrengana hurbiltzen. Elkar ezagutzeko aukera izan zuten, elkar identifikatzeko, eta orain arteko ezjakintasunak sortutako zalantzetatik ateratzeko. Asko eta asko izan dira armairutik atera direnak, eta horrek, egunerokoan errazago identifikatzeko aukera eman digu.

Gerora, establezimendu gehiago animatu da, eta gaur egun, 83 dira euskaraz entzuteko belarria prest dutela adierazten dutenak, herritarrok hitz egin dezakegula lasai euskaraz haiekin, alegia. Horretarako, establezimendu hauek identifikatzeko “belarriprest” pegatina dute jarrita erakusleihatuan.

*Irten armairutik  
eta hitz egin euskaraz!*



TXINTXARRI ALDIZKARIA

## GUREAN, BELARRIA BETI PREST!

### Leire Berasategi, Berasategi Kafeak

"Aipagarriena Belarriprest-ek gurekin euskaraz aritzeko egiten duten ahalegina da. Badaude bezero batzuk gurekin euskaraz harremantzea erabaki dutenak: batzuk poliki-poliki, beste batzuk behar dutena euskaraz eskatuta... Jendea gero eta gehiago saiatzen da".



### Lurdes Estanga

Bezero Ahobizia da, eta gainontzeko bezero Ahobiziekin bezala, betidanik hitz egin dugu euskaraz. Gure harremantzeko era naturala da.



### Benito Carrasco

Benito, berriz, Belarriprest da. Euskaraz moldatzen ez denean gaztelaniaz hitz egiten digu, baina guk euskaraz egiten dugu berarekin, badakigulako ulertzen gaituela.



**Ahoa bizitu!**  
Establezimendu  
hauetan belarria  
prest duzu!

Abend garagardotegia  
Acha-Orbea farmazia Adats  
ile-apaindegia *Aitonak*  
*okindegia* Alazne boutique Aldaz  
hortz-klinika Ana ile-apaindegia  
Arregui elektrizitatea Asier Ilarramendi

masajista Also taberna Txindoki taberna Berasategi kafeak Bikain  
Bizker Borobil arkitektura Buenetxea kafetegia Avenida kafetegia

Carrefour express Carretero liburu-denda Christian estilistak Del Oria kristaldegia

Dimaco koltxoiak Doal psikologia zentroa Etxarri argazki-denda Eka Yoga estudioa Elme

aseguruak Etxezarreta harategia Eztiphoto Betelu gestoria Goiz argi taberna Gure

etxea taberna Haritza osteopatia Hitz-kiribil logopedia Ibaiondo fisioterapia Igoa

estetika Inñaki taberna Irigoyen optika Iturbe zapata-denda izarra bitxitegia Jalgi taberna

Josema burdindegia Labe-goxo okindegia Lagunak elektrizitatea Larrañaza harategia

Lasarte taberna Lurdes ile-apaindegia Maialen de Miguel

farmazia Maite Erkizia ile-apaindegia Maite estetika Maria

Luisa ile-apaindegia Marian ile-apaindegia Masajeen

txokoa Matia fundazioa Maya lentzeria Minsua aseguruak

Mugica aseguruak Mugica autoeskola Multioplicas

Noaoa bidaiak Oihana estetika Okela harategia Olmi

mertzeria Orbela belar-denda Ormazabal Orue

botika Patricio taberna Pikabea aseguruak Podologia

klinika Rakel masajista Riojanos jatetxea Salto gela

Stratford akademia Sukoa burdindenda Urbiztondo

farmazia Uruzola mertzeria Usoak taberna Isu Leihok

Viña del mar taberna Yolanda taberna Zapa zapata konponketa



"Belarriprest" izan nahi duten establezimendu guztiei oraindik aukera dutela jakinarazi nahi diegu. Pegatina eskatzeko baldintza bakarra da bezeroek euskaraz egiten dietenean haiek ulertzeko gai izatea. Pegatina eskatzeko euskara-zerbitzuarekin harremanetan jarri telefonoz 943 37 61 84 edota posta elektronikoz [m.gorostiza@lasarte-oria.eus](mailto:m.gorostiza@lasarte-oria.eus)



LASARTE-ORIA  
UDALA - AYUNTAMIENTO



Herritarrak joan-etorrian Kale Nagusian, dendak irekita daudela. TXINTXARRI

# Denden borroka, bizirik segitzeko

Lasarte-Oriako merkataritza bizirik dago, ingurua saltoki handiez josita egon arren. Halere, kezka ikusten dute dendariak haien hedapena: Leroy Merlin ezartzekoa da inguruan. Herria bizirik mantentzeko merkataritza ezinbestekoa dela aldarrikatu dute.

## Adrian Garcia

Denbora gutxian aldaketa asko jasan ditu gizarateak, eta joera arriskutsu bat nagusitu da azken boladan: presak estututa bizi dira herritar asko, eta horrek herriak bultzatu ditu beste era batera antolatzen. Multinazionalak ongi aprobetxatu dira horretaz; azken hamarkadetan Lasarte-Oriaren inguruan eraiki diren merkataritza gunek dira horren adibide: Urbil eraiki zuten 2000. urtean. Gero, Decathlon, Belartza gunean. Orain, Mercadona supermerkatu katearen eta McDonald'sen txanda da. Eta etenik ez du hedapenak: Leroy Merlin brikolaje eta etxerako dekoraziorako multinazionalak Lasarte-Oriako lurretan ezartzeko asmoa du, Errekalden.

Herriko EAJk arrakastatuz aurkeztu du proiektua: 150

lanpostu zuzen sortuko ditu, eta beste 50 zeharka. Estitxu Alkorta zinegotziaren arabera, urtean 150.000 euro utziko ditu Frantziako enpresak zergetan.

Gune estrategikoa da Lasarte-Oria; Donostiatik kilometro gutxira dago, eta komunikabideak onak dira. Gainera, N-I eta A-8 errepideek inguratzen dute herria. Eta gertu dago Donostia inguratzen duten errepide sarea. Multinazionalentzako lur preziatuak dira. Haatik, herriko merkatarientzat amesgaiztoa bihurtu da.

Herriko denda txikiek "kezka" ikusi dute Lasarte-Oriako aldiriak saltoki handiez betetzen. Ramon Ormazabal bilakaera horren lekuko zuzena izan da. Orain 40 urte ireki zuen loradenda, eta beste denda asko ixten ikusi ditu denbora horretan. Aterpea merkatarien elkarteko

presidentea ere bada. Zoritxarreko mugarrri baten gisa gogoratzen du Urbilen irekiera. "Goraldi oso on bat eduki genuen, Urbil ireki arte". Lasarte-Oriari ez ezik, ondoko herriei ere eragin zien. "Oso kolpe gogorra izan zen dendarienezako eta ostalarientzako".

Dena den, multinazionalak herria inguratu izanagatik, merkataritza bizirik dago oraindik. Dionisio Alvarezek, udaleko enplegu dinamizaziorako teknikariak, eman ditu datuak: 500 bat enpresek osatzen dute egun merkataritza ehuna.

**URBIL ZORIGAITZOKO MUGARRITZAT DUTE DENDARIEK: HERRIKO KONTSUMOAREN GORALDIA ETEN ZUEN**

Horietatik, 192 denda txikiak dira. Ostalaritzakoak, ehun bat. Eta zerbitzuak eskaintzen dituztenak, 181 (ile apaindegiak, hortz klinikak, aholkularitzak...).

## 500 enpresa

Urbilek hasieran, eta krisi ekonomikoak ondoren, negozioak kaltetu ditu. Baina azken urteetan kopuru hori berdintsu mantendu da, gorabehera txiki batzuekin.

Udalak badaki herriaren ekonomian merkataritza txikiak duen pisua: industriarik apenas ez dago, eta hirugarren sektoreak osatzen du zergen bidezko diru sarreren %70.

Tokiko ekonomiaren akuiluak baitira denda txikiak. Gaindegiak gertutik aztertu du merkataritza txikiaren fenomenoak. Imanol Esnaola behatoki ko koordinatzailearen esanetan, Lasarte-Oriak badu berezitasun bat: "Populazio zaharkitua du herriak, eta, ondorioz, beharrezko egiten du gertuko zerbitzua. Merkataritza txikia egoteko premia bat badago. Funtzionalitate argi bat dago".

Multinazionalak herrian aberastasuna sortzen dutela defendatzen dute proiektu erraldoi horien aldekoek. "Zergak ordaintzen dituzten heinean bai. Baina badakigu horretarako zenbat salbuespen dituzten. Hori hein batean itzultzen da herrira, eta enpleguak sortzen dira", azaldu du adituak.

Halere, auziak ertz asko dituela nabarmendu du Esnaolak.

Enplegua da horietako bat. Izan ere, askotan salatu izan dute baldintza txarretako lanpostuak direla saltoki handiek eskainitakoak. "Merkataritza txikiak barne logikari erantzuten dijon enplegua sortzen du. Saltoki handiek beraiei gehien komeni zaien lanpostu mota sortzen dute". Gainera, zerga bilketa "eraginkorragoa" egiten da denda txikiekin, Gaindegiako koordinatzailearen hitzetan. "Dendak herriko sarean eragiten du, eta inguruko komunitateari ongizatea ematen dio".

## Bizkar emanda

Baina errealtateak bizkar eman die dendariei. Ikusten dute herritarrak kanpora joaten direla erosketak egitera; inguruko merkataritza gunetara edo Donostiara. Gehien erabiltzen duten hitza da haien egunerokoa deskribatzeko: *borroka*. "Irekitzen dugunetik itxi arte, eguneroko borroka da".

Ezin dute Urbilgo saltokien ordutegi eta merkealdi amaigabeekin lehiatu. "Gerra hori galduta dugu. Egin ditugu probak, eta eguerdietan ireki izan dugu. Ez du funtzionatu. Ez du pena merezi larunbat arratsaldean irekitzea", adierazi du Ormazabalek.

Batez ere arropa dendek sufritu dute lehia basati hori. Alba arropa denda du Kale Nagusian Yolanda Albak. "Oso ezkorra naiz. Zaila ikusten dut merkataritza txikiek herrian



eustea, batez ere arropa dende. Lasarteko jende askok Zaran erosten du”.

Krisi ekonomikoaren ondorioak azalean sufritu ditu Albak. Gainbehera ekonomikoaren aurretik jarri zuen denda, orain hamar urte. “Hasi nintzenez, merkealdietan jendez gainezka izaten nuen denda. Orain, %30, %40 eta %50eko beherapenak jartzen dituzu, eta badaude inor etortzen ez diren egunak”.

Albak uste du askok prezioa besterik ez dutela begiratzeko. “Merkeago erosteko aukera badute, berdin zaie gainerakoa”. Kalitatezko oihalak saltzen ditu berak: “Marka onak ditut, baina askok esaten dute garestiak direla. Ez diote kalitateari begiratzeko”. Denda txikiek ezin dute lehiatu saltoki handiek dituzten prezioekin. “Txinan egindako produktuak ekartzen dituzte, eta ezinezkoa da prezioa berdintzea. Ezin gara alderatu horrelako enpresa erraldoekin”.

#### Desberdintasuna tratuan

Aurrera egiteko, desberdintzea beste erremediorik ez dute herriko dende. Prezioan bakarrik ez, multinazionalen gabezietan jartzen dute indarra: tratuan eta konfiantzan. “Artikulu ederra eta lehiakorra eskaini behar dugu. Baina

arretak bezeroarekiko tratuan egon behar du”, uste du Ormazabalek. Aterpeko presidentearen ustetan, “tematia” eta “berritzailea” izatea da gakoa. “Etengabe irudia aldatu behar

### MULTINAZIONALEN GABEZIETAN JARTZEN DUTE INDARRA DENEK: TRATUAN ETA KONFIANTZAN

dugu. Zailtasun askorekin, baina badugu etorkizuna”.

Alba arropa dendan sartu orduko nabari da dendariaren eta bezeroaren arteko harreman berezi hori: jertse bat ari da probatzen andre bat, baina ez dago guztiz konbentziturik. “Probatu ezazu etxean, ea etxekoek zer esaten dizuten. Eta gustatzen ez bazaizu, itzuliko didazu”, esan dio Albak.

Mikel Mauleonek ere uste du alor alorretan abantaila dutela. Deco 75 denda jarri zuen orain bi urte, Kale Nagusian. Leroy Merlin izango du lehiakide zuzen, etxeko dekorazio produktuak saltzen baititu: gortinak, maindireak, eguzki oihalak eta itxiturak, besteak beste. “Baina

zerbitzuetik bizi naiz, eguzki oihalak eta instalatzen. Ezingo nuke aurrera egin bakarrik etxerako oihalak saltzen”.

Mauleon Leroy Merlinekin lan egindakoa da, eta ezagutzen du haien jarduteko modua: “Bezeroei arreta handirik ez diete jartzen. Anabasa eta deskoordinazio handia dute. Eta kalitatea eta zerbitzua ere hala moduzkoa da”. Halere, zalantzarik ez du: “Min asko egingo du”.

#### Leroy Merlin

Dendari guztiak “beldurtu” ditu Leroy Merlinek iragarpenak. Negozio mota askori eragingo dio eta, Ormazabal Aterpeko presidentearen esanetan. “Burdindegiei, dekorazio dendei, loradendei... Alor asko dira”.

Edonola ere, urte asko eman ditu Ormazabalek negozioan, eta ikuspuntu praktikoa ere badu: “Egitea beste erremediorik ez badago, behintzat Lasarte-Oriako lurretan egin dezatela, gutxienez lanpostuak eta zergak herrian gera daitezke”. Izan ere, beste aukera zen Donostiako lurretan eraikitzea, herritik gertu betiere. Ormazabalek esperantza badu zergen bidez bildutako diru horrekin udalak herriko merkataritza sustatzen laguntzea.

Inguruan ezarri diren multinazionalen aurrean,

Ormazabalek uste du dendari txikiek batzea ezinbestekoa dutela. “Merkatarien elkarrekin bazkide asko ditu, baina zabaltzea garrantzitsua da, fidelizazio kanpainak egiteko”.

### LASARTE-ORIA LO-HIRI BIHUR EZ DADIN, EZINBESTEKOA DA DENDA TXIKIEK IREKITA EUSTEA

Gauza berbera pentsatzen du Avilak, udaleko enplegu dinamizazio teknikariak: “Garrantzitsua da uler dezatela sektore bat direla, eta batera jardun behar dutela. Lehiakideak izan arren, elkarri laguntzen badiote denak aterako dira irabazten”. Eta ari dira norabide berean mugitzen: aurtengo bazkideak bikoiztu ditu Aterpeak. 50 zituen urte hasieran; egun, berriz, 116 dira. Gainera, merkatariei laguntzeko udalak lehenetsitako bidea da elkarrekin. 2002. urtean 2.000 euroko laguntza eman zuen zion Aterpeari. Joan den astean sinatutako hitzarmenaren ondotik, hiru urtez 11.000 euro jasoko ditu urtero elkarrekin.

Bestalde, udalak hainbat ekimen jarri ditu martxan herriko merkataritza sustatzeko: kaleak txunkundu ditu eta horma batzuetan muralak margotu. Helburua denden ingurugiroa hobetzea da. Avilaren aspaldiko desioa da: “Hirigunea zabaltzeko behar dugu, beste auzoetara iritsi dadin. Barrera psikologiko horiek hautsi behar dira”.

#### Herri dinamikoa

Halere, lanak izango dituzte herritarrak kontzientziatzen, ohiturak errotik aldatu baitira: egun herritar askok erabakitzen dute merkataritza gunetara jotzea, erosotasunaren aitzakian. Autoa lasai aparkatu (zaila da hori Lasarte-Orian), gune berean askotariko dendetan sartu, eta orga beteta etxera itzuli. Horrez gainera, aisialdirako guneak ere bihurtu dira: tabernak, zinemak eta haurrentzako jolasak dituzte.

Eta saltoki handiak jendez bete ahala, hustu egin dira herriak. Lo-hiri bilakatu dira asko, eguneroko bizitzaren traza oro ezabatuta. Hori saihesteko, Ormazabalek ezinbestekotzat jotzen dute denda txikiak: “Merkataritza eta ostalaritza dinamikoa behar du herri batek, herri proiektuak huts egin nahi ez badu. Kultur ekintzak eta denda irekiak baditugu, herria pozik eta bizirik egongo da”.

Baina bezeroak ez ezik, dendariak kontzientziatzearekin ere beharrezkoa deritzo. “Dende ere badugu erantzukizuna”. Izan ere, garai berrietara moldatu behar dute enpresariak. Albak badaki berritzea ezinbestekoa dela: “Sare sozialetan sartuko naiz. Ikasten ari naiz horretarako. Denda askok horrela funtzionatzen dute”.

Euskal Herriko beste zonalde askotan egoera beretsuan daude dendariak. Eta joera da gero eta saltoki handi gehiago zabaltzea. Denda txikien etorkizunari buruz zalantzak ditu ere Gaindegiako Esnaolak. “2008. urtetik aurrera askok itxi dute. Eta iraun duten askok erretirorako adinari itxaroten ari dira”. Horrek airean uzten du tokiko merkataritzaren ereduak: “Merkatarien batez beste adinak laguntzen digu aurreikusten merkataritzaren hurrengo atzeraldia”. Baina mehatxua dena, aukera bat ere bihur daiteke: negozio berriak irekitzekoa.



Lehia basatia jasaten dute dende merkataritza guneen partetik, batez ere arropa dende. TXINTXARRI



Juanjo Arregirekin batera zuzenduko du Real. TXINTXARRI

# "Taldea dinamika sortzea da gure aurtengo erronka nagusia"

**GORKA ALVAREZ REALEKO BIGARREN ENTRENATZAILEA**

Gipuzkoako talde askotan entrenatzaile aritu ostean, Realeko deia jaso du Gorka Alvarez herritarrak. Ilusioz jaso du erronka, azken urteetako dinamika positiboa jarraitzeko asmoz

**Martin Vicioso**

Ilusioz eta gogoz hartu du Gorka Alvarezek aurretik daukan erronka. Realeko bigarren entrenatzaile izendatu dute, Juanjo Arregirekin batera. Hastear den denboraldia nola ikusten duen azaldu dio TXINTXARRIRI..

**Añorga, Hernani, Mariño... ibilbide luzea egin duzu Gipuzkoako futboleko Realera iritsi aurretik.**

Urte gehienak Añorgan eman ditut. Gehienbat, emakumezkoen taldean. Bigarren entrenatzaile izan nintzen, Unai Gazpiorekin

batera, eta gerora taldea hartu nuen. Tartean, mutilen kadeteen entrenatzaile ere izan naiz. Iazko denboraldian esperientzia txarra izan nuen Usurbilgo mutilekin. Jende gutxi ginen, eta, horregatik, taldea uztea erabaki

**"ASPALDITIK EZAGUTZEN DUT JUANJO ARREGI; ANTZEKO IKUSTEN DUGU FUTBOLA"**

nuen. Hernanin aritu naiz aurtun.

**Aurten, Juanjo Arregiren bigarren entrenatzaile izendatu zaituzte Realean. Nola hartu zenuen albistea?**

Gipuzkoarra eta Real gertutik bizi izan duen pertsona izanik, horrelako deia jasotzea pozgarria eta berezia da. Harridura puntu bat ere sentitu nuen. 15 urte inguru daramatzat entrenatzaile lanetan, eta Lehen Mailatik gertuago egon nintekeen Añorgan nenbilenean. Orduan ez nuen planteatzen Realeko deia iritsi

zitekeenik, baina orain, Hernanin maila xumeago batean arituta, ez nuen inondik inora espero.

**Juanjo Arregi aurretik ezagutzen zenuen?**

Bai. Oso harreman ona dugu, gainera. Bitxia da kasua. Izan ere, Realak aparte deitu gaituelako gure funtziorako. Sinatzerako orduan, ez genekien batera arituko ginela. Nik poz handia hartu nuen bera entrenatzaile izango zela jakin nuenean. Añorgako emakumezkoen taldea uzterakoan, hark hartu zuen. Transmisio horretan sortu genuen harremana. Hurrengo denboraldian, berriro ere, ni izendatu ninduten entrenatzaile. Futbol iritziei dagokionez, antzeko ikuspegia dugu. Beraz, pozik nago arlo horretan ere.

**Aldaketak egon dira taldean. Kapitainak –Aintzane Encinas– eta esperientzia duten zenbait jokalarik taldea utzi dute. Prestatze lan handia dago denboraldia hasi aurretik?**

Bajak egon diren arren, uste dut taldea, oro har hartuta, nahiko egina dagoela. Bestalde, bai Juanjok baita nik ere urte asko eman ditugu emakumezkoen futboleko. Hark Euskal Selektzioan eta nik Añorgan, Mariñon, Hernanin... Ondorioz, jokalaria asko ezagutzen ditugu. Batzuk guregatik pasa direlako, eta beste batzuk egindako jarraipenagatik edo sortutako harremanagatik. Esperientzia duen jendeak taldea uzteak beti eragiten du, baina ez dut uste blokea asko ukituko denik. Bizpahiru fitxaketa egin ditugu taldea indartzeko asmoarekin, baina oinarriak azken urtetakoa izaten jarraituko du.

**Joko estiloari dagokionez, aldaketak egingo dituzue?**

Askotan esan izan da entrenatzaile aldaketarekin joko aldaketak etortzen direla. Ez dut uste goitik behariko aldaketarik egongo denik. Gure ideiak pixkanaka sartu nahiko ditugu, baina iraultza handirik egin gabe.

**Bloke gaztea izan arren, urte asko pilatu dituzte lehenengo mailan. Nola ikusten duzu taldea zentzu horretan?**

Emakumezkoen futbola asko aldatzen ari da. Bereziki,

**"GIPUZKOAR ETA REALZALE IZANIK, POZ HANDIA HARTU NUEN REALAK ESKAINTZA EGIN ZIDANEAN"**

lehenengo mailan. Jokalaria gero eta gazteago iristen dira elitera, eta, aldi berean, ibilbidea gehiago luzatzen dute. Lehen ohikoa zen 24 edo 25 urterekin futbola uzten hastea. Puntako taldeetan, batez ere, 29 urteren bueltako jokalaria dezente daude. Egia da gure taldean halako gutxi daudela eta talde gaztea garela. Gure gazteek esperientzia dute, eta futbol mailari dagokionez prest daude.

**Iaz Realak ez zuen liga oso ondo hasi, baina indartsu amaitu zuen eta Espainiako Kopan Bartzelona kaleratetik gertu ibili zen. Bolada ona baliatzen ahaileginduko zarete?**

Oro har, Realeko kirol maila goraka doala uste dut. Igor San Miguelen lehenengo urtean eskuratutako bosgarren postu hura izugarria izan zen. Emaitzak ez ezik, ondo jokatzea lortu zuen taldeak. Bigarrenean, esan bezala, hasiera panggalago horrek pixka bat zigortu zuen. Gerora, ziklo onak izan dituzte, sentsazioak berreskuratu dituzte sei edo zazpi partida jarraian irabazita. Liga ondo amaitu zuten eta Kopan gertatutakoa pena izan zen. Realeko eta Bartzelonaren artean zentzu askotan dagoen alde hori zelaiaren erabat murriztua izan zen eta luzapenera joan zen kanporaketa. Edozeinek irabazi zezakeen.

**Talde handiekin lehiatetik gertu da Realak?**

Ez dut esango goi mailako taldeen mailara ailegatzen ari garenik, baina haiekin lehiatzeko gai garela erakusten ari gara. Gertuago gaude eta iazko bukaera indartsu horrek lagunduko gaitu, batez ere, denboraldi berriari konfiantzaraz ekiteko.

**Zein da datorren denboraldira begira erronka nagusia?**

Ez naiz oso erronkazalea, nahiz eta barnean lanean ari garenik gure buruari helmugak jarri. Gu berriak izanda, erronka nagusia lanean jendea gustora sentitzea da: talde dinamika sortzea. Iaz amaitutako bolada on horri jarraipena ematea gustatuko litzazuke. Espainiako Kopa izan da azken urteetako ilusioa, eta aurten ere bertan egon nahi dugu. Baina, esan bezala, horretarako ezinbestekoa da lehenik gure arteko elkarlana finkatzea.

# Herriko igerilarien maila bikaina Gipuzkoakoan

Infantil, junior eta absolutu mailako Gipuzkoako Udako Txapelketak jokatu ziren ekaineko azken asteburuan. Lasarte-Oriako igerialariek emaitza onak eskuratu zituzten, beste behin. Bihar eta etzi hitzordu garrantzitsua dute Euskadikoan

## Martin Vicioso

Lasarte-Oria jaietan egon arren, Buruntzaldea IKT-ko igerilariak hitzordu garrantzitsua zuten asteburuan. Guztira 21 domina irabazi zituzten infantil, junior eta absolutu mailako Gipuzkoako Udako Txapelketetan. Horietatik, urrezko 11, zilarrezko zazpi eta brontzezko lau.

Mikel Esnalek, Iñigo Ibarburuk eta Haitz Mitxelenak lan bikaina egin zuten absolutu mailan. Kategoria honetan dominarik banatzen ez den arren, 50 metro estilo librean eta 50 metro tximeleta estiloan onena Esnal izan zen. Bizkar estiloko 50 metroetan, berriz, hirugarren amaitu zuen. Bestalde, Mitxelenak bigarren denborarik onena egin zuen 200 metro tximeleta estiloan. 800 metro estilo librekoan nagusi izan zen Ibarburu, 50 metro tximeleta estiloan Esnalen atzetik sailkatzeaz gain.

Jubenilei dagokienez, oso lan txukuna egin zuten Nahia Jie Villamedianak, Unai Irigorasek, Beñat Alkortak, Xabier Alonsok eta Jon Ibarгойenek.

Junior eta absolutuek bihar eta etzi jokatu dituzte Udako Euskal Herriko Txapelketak Gasteizen.

Neska infantilak izan ziren txapelketan domina gehien etxeratu zituztenak. Parte



Buruntzaldea IKT-ko igerilariak igerilekura jauzi egiten. BURUNTZALDEA IKT

hartutako banakako froga guztietan nagusi izan zen Leire Martin, bere adineko EAeko errekor berria ezarriz 400 metro estilo librean. Ahizpa Ainhoa atzetik sailkatu zen hiru frogatan, zilarrezko hiru domina etxeratuz. Paula Sevillanok, berriz, brontzea eskuratu zuen 100 metro bizkar estiloan. Nora Qian Villamedianak eta Lander Sorozabalek ere denbora onak egin zituzten.

Errelebutan, infantil neskek hiru domina irabazi zituzten, urrezko, zilarrezko eta brontzezko bana.

Taldeko alebinek, aldiz, Tolosako Usabal kiroldegian Euskal Herriko Alebinen Udako Txapelketa jokatu zuten. Unai G. Somovillak lan bikaina egin zuen, urrezko domina eskuratu 200 metro bizkar estiloan.

Lau estiloetan txukun aritzen dela erakutsi zuen Buruntzaldea IKT-ko igerilariak, bigarren onena izan baitzen 400 metrotan. Aintzane Sarobek, Ane Artolak, Nora Imazek, Nerea Santosek, Eneko Elizasuk, Pello Ibarгойenek eta Iker Felipek ere maila ona erakutsi zuten.

## Iraitz Pikabea eta Peio Fadrique Marimurumendi mendi maratoian

Lasarte-Oriak ordezkari izan du asteburuan Goierri aldean egin diren mendi lasterketa gogorretan

### Txintxarri

Pasa den asteburuan hiru mendi lasterketa gogor egin zituzten Goierri: Marimurumendi maratoia, G2 Haundiak 88 kilometroko lasterketa eta Ehunmilak 168 kilometroko froga.

Iraitz Pikabea eta Trinko Triatloi taldeko Peio Fadrique herritarrek amaitu zuten Marimurumendi. Lehenak 06:39:45ko denbora eginez eta bigarrenak 07:17:56.

Bi lasarteoriatarrek hasi zuten Ehunmilak, baina ez Gorka Mateok ezta Jon Lasartek ere ezin izan zuten lasterketa amaitu.



Fadrique, mendian. PEIO FADRIQUE

## Emakumezkoen errugbi taldea osatzekotan da Beltzak RT

Zarauzko Rugby Taldearekin batera emakumezkoen taldea osatu nahi du Beltzak RT-k datorren denboraldian

### Txintxarri

Aurrera pauso handiak eman ditu Beltzak eta Zarautz errugbi taldeen arteko harremanak. Horren adibide da, esaterako, 16 urtez azpiko Euskal Liga aurten irabazi izana.

Erronka handia dute, ordea, datorren denboraldiari begira. Emakumezkoen taldea ateratzeko asmoa erakutsi dute bi talde gipuzkoarrek, eta lehenengo entrenamendua egin dute horretarako.

Azaldu dutenez "ez da erraza" taldea ateratzea. Izan ere, 20 edo

21 jokalaririk behar dituzte gutxienez bete ahal izateko. Horregatik, gonbita luzatu dute Lasarte-Oriako, Zarauzko eta inguruko herrietako pertsonak hurbildu daitezten.

Paola Vega herritarrek Beltzak RT taldeko gaztetxoaren kategoriatan jokatzeko du. 16 urte betetzean, halere, ez du baimenarik izango bere taldekideekin batera kirola egiten jarraitzeko. Hark eta errugbian jokatzeko gogoia duten emakume guztiak lekua izan dezaten lanean ari dira bi taldeak.

## Carbayeda eta Pozo ederki aritu dira Espainiako txapelketan

Herriko txirrindulariak Espainiako Txapelketetan maila txukuna eman dute kadete eta infantil mailatan

### Txintxarri

Buruntzazpi Txirrindularitza Eskolak ordezkari izan zuen asteburuan jokatuak Eskolarteko Espainiako Txirrindularitza Txapelketan. Beñat Carbayeda lehiatu zen

infantil mailan, eta Asier Pozo berriz, kadete kategorian.


Aurreko postuetan amaitzea lortu ez bazuten ere, esperientzia ederra bizitzeko aukera eduki zuten bi lasarteoriatarrek. Carbayedak irabazleak baino

hamabost segundu gehiago behar izan zituen froga amaitzeko. 28. postuan amaitu zuen infantilak BTT kategorian. Lineako lasterketan 41. izan zen, Bonilla irabazleak baino 58 segundu gehiago behar izan zituela.

Pozok, berriz, 54. postua eskuratu zuen bere mailan. Irabazleak baino 01:09 minutu motelago amaitu bazuen ere, harro egoteko moduko lasterketa egin zuen herritarrek. Izan ere, kontuan hartu behar da lehenengo urtea duela kadete mailan.



Pozo Euskadiko taldearekin aritu da pistan eta errepedean. GTXE



Pistan zein aire librean, primerako denboraldia egin du Eneritz Bustok. JOSE LUIS MARTINEZ

# Hesietan azkarrena dela erakutsi du Bustok

Eneritz Busto lasarteoriatarra 100 metro hesietan onena izan da Espainiako junior mailako txapelketan. Gutxigatik ez du lortu Udako Europako Txapelketara sailkatzea. Dena den, denboraldi borobilar egin du beste behin LOKEko atleta gazteak

## Martin Vicioso

Maila bikaina erakutsi du berriro ere LOKE taldeko Eneritz Bustok junior mailako Udako Espainiako Atletismo Txapelketan. Urrezko domina etxeratu du lasarteoriatar gazteak 100 metro hesidunetan, kronoa 14.16 segundutan geldituz. Zapore gazigozoa duen garaipena izan da. Izan ere, bederatzia ehunekoengatik ezin izan du txartela lortu Italiako Grosseto hirian jokatu den junior mailako Udako Txapelketarako.

Dena den, nagusitasunez irabazi zituen Bustok parte hartutako lasterketa guztiak, nahiz eta lehenengoan erorikoa izan. Zilarrezko domina bereganatu zuen Mar Ramirezek baino segundu hamarreko bat azkarrago amaitu zuen froga. Africa Radsmarena izan zen brontzea.

Atletak azaldu duenez, erorikoaren ondorioz, min hartu zuen sailkapen lasterketan, eta finalerdi eta finalean "arazoak"

izan zituen hori dela eta. Dena den, "konpetitzeko grinari eta zorte pixka bati esker" urrea bereganatu zuen Bustok.

## Promesak

Ederki aritu da, aldi berean, Maria Eugi promesa mailako Udako Espainiako Atletismo Txapelketan.

200 metroko frogan parte hartu zuen Atletico San Sebastian taldeko lasarteoriatarrak. Finalerdietan zarpigarren denborarik onena egin zuen Eugik, eta finalerako txartela eskuratu zuen kronoa 25:08 segundutan geratu ostean.

Lasterketa erabakigarrian, ordea, ez zuen zorterik onena izan lasarteoriatarrak. 25:55

## EUROPAKO TXAPELKETAN LEHIATU AHAL IZATETIK GERTU GERATU DA BUSTO

segundutan amaitu zuen, finalerdietako postu bera eskuratuz. Halere, aurreko marka errepikatuz gero, bosgarren amaituko zukeen Eugik.

Atleta gazteak azaldu duenez, denboraldia "ona" izan da. Halere, txapelketa hasi baino bi aste lehenago min hartu zuen gihar politeoan, eta ezin izan zuen bere mailarik onena eman. Dena den, asteburu honetan absolutu mailakoan lehiatuko da Bartzelonan, 200 metroko frogan eta 4x100 metro txandakakoan.

Urtetan LOKE taldean aritutako Itoitz Rodriguez, bestalde, laugarren amaitu du 400 metroko froga. Yeray Veronizek, berriz, sailkapen froga gaintu arren, ezin izan zuen finalerako txartela eskuratu 100 metroetan.

Oro har, denboraldi bikaina egin dute atleta lasarteoriatarrek. Bai herriko LOKE taldean aritzen direnek, baita kanpoko taldeekin lehiatzen dutenek ere. Gehienek bukatu dute, baina absolutu mailan lehiatuko dira batzuk oraindik ere.



Kontsolazio fasean txapeldunorde geratu zen Ostadar. TXEMA VALLES

## Mundu osoko hamaika talde aritu da lehian Michelinen

Donosti Cup futbol lehiaketa lehen aldiz jokatu da Lasarte-Orian. Talde ugari bildu da Michelinen

## Txintxarri

25 urte bete ditu aurten oinarrizko futboleko erreferentzia den Donosti Cup txapelketa. Mundu osoko 75.000 neska-mutilek parte hartu dute orain arte. Aurten, lehen aldiz, Lasarte-Oriako Michelin zelaia lehiaketako partidak hartu ditu.

Talde asko igaro dira herritik, eta Ostadar SKT-k ere etxean jokatzeko aukera izan du. 14 urtez azpiko kategoriako taldeak bana berdindu zuen Hondarribia FE-ren aurka. Ezin izan ziren Txapeldunen Fasera sailkatu, baina oso lan txukuna egin zuten **K o n t s o l a z i o F a s e a n .**

Txapeldunorde amaitu zuten, finala St.Jean de la Ruelle taldearen aurka 2-4 galdu ondoren.

## Ostadarretik Añorgara

Datorren denboraldian bi lasarteoriatar izango ditugu Añorgako bigarren taldea entrenatzen. Ohorezko jubenil mailako eta emakumeen lurralde mailako Ostadar SKT-ren entrenatzaile izan diren Javi Solchagak eta Julen Ormazabalek Rezolan gidatuko dute taldea, hemendik aurrera.

Iaz, hamaikagarren postuan amaitu zuen Euskal Ligan Añorgak.

## Lan ona egin du Donostiarrak asteburuan

Euskotren ligara igotzeko kanporaketetako jokatu ditu Intza Fernandez herritarrek asteburuan. Donostiarrak taldean egiten du arraun gazteak. Larunbat zein igandean lehiatu dira. Bi estropadetan lan ona egin eta zarpigarren postua poltsikoratu dute.

V. Oriako Kanpina bandera jokatu zuten larunbatean, Orion. 11.19,20ko denbora egin zuten arraunlariek. Hibaikak irabazi zuen aipatu bandera hori. Igandean, berriz, VI. Euskotren banderan lehiatu zen herritarra, Donostian. Berriro ere zarpigarren geratu zen Donostiarrak, 13.50,62ko denbora eginez. San Juanek irabazi zuen.

## Nemerina zaldi frantziarrak irabazi du Irizar Sari Nagusia

Jardunaldi zirrargarria bizi zuten igandean, berriro ere, Lasarte-Oriako Hipodromoan. Irizar Sari Nagusia zen eguneko hitzordu potoloa, eta Nemerina zaldi frantziarrak bereganatu zuen 5.000 euroko saria.

Zaldi bateko aldearekin menperatu zuen Quimera britainiarra. Lyric Ballad-ek osatu zuen podiuma. 2.000 metroko ibilbidea burutu zuten zaldiek.

Denboraldiko seigarren jardunaldiaren txanda etorriko da igande honetan. Casino Kursaal saria jokatu dute. 1.600 metroko lasterketak 8.500 euro utziko ditu guztira, horietako 5.000 irabazlearentzat direla.

## ZORION AGURRAK



**Helene**  
Zorionak Printzesa!  
Besarkada handi bat  
familiaren partez. Asko  
maite zaitugu!



**Aimar**  
Zorionak bihotza,  
etxeko erregea zara  
eta 3 urte betetzen  
dituzu. Asko maite  
zaitugu, muxu bat,  
zure guroasoak.



**Aroa**  
Zorionak pottoki!! muxu  
handi handiak familia  
osoaren partez. Asko  
maite zaitugu.



**Enara**  
Zorionak guapetona!  
Hamabi udaberri  
dagoeneko, segi beti  
bezain jator! Primeran  
pasako dugu eguna  
zure kontu. Muxu pila  
bat etxekoan partetik!

## Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide  
dituzu: Txintxarriren bidez zoriontzeko:

**Internet**

Txintxarri.eus-en

[txintxarri.eus/zorionagurra](http://txintxarri.eus/zorionagurra) eta *Bidali zure zorion  
agurra* formularioa bete.

Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da  
webgunean eta ostiralean Txintxarri paperean

**Posta elektronikoa**

Mezua bidali

[txintxarri@txintxarri.eus](mailto:txintxarri@txintxarri.eus) helbidera, eta idatzi:

izen-abizenak, urtebetetze-eguna eta nahi duzun  
testua. Ez ahaztu irudia atxikitzeaz.

**Ordezkaritzak**

Etor zaituz Txintxarriren ordezkaritzaren batera edo  
deitu 943 37 14 48 telefonora.

## SUDOKUA

7				4	8	6	1	3
6						7		
		1			7		2	8
8			6		3			
	9							
1				2	9		5	7
				8			3	4
		1				2		
	8	2		3	6	9	7	

## OHARRAK

**Gasteizera irteera**

Datorren asteazkenean, Biyak  
bat helduen egoitzako kideek  
Gasteizera irteera antolatu dute.  
Egoitzatik goizeko 8:30ean  
aterako dira. Gasteizen Katedral  
zaharra bisitatuko dute, eta  
arrrtsaldean, denbora librean  
izango dute hiria bisitatu ahal  
izateko. Bi prezio finkatu dituzte:  
bazkideentzat 35 euro eta ez  
bazkideentzat berriz, 45 euro.

Izen ematea ireki dute eta  
interesatuek ofizinarra gerturatu  
beharko dute goizeko 10:30etik  
12:30era.

**Sanpedroetako blusa**

Norbaitek blusa hau ikusi badu  
mesedez, jarri telefono honekin  
kontaktuan: 676713243

**Karmengo jaietan  
bazkaria**

Uztailaren 16an herri bazkaria  
antolatu dute Oriako El Jardín  
jatetxean. Bi prezio finkatu  
dituzte bazkarirako: 20 euro  
helduen menuak eta 11 euro  
haurren menuak. Bazkaria  
pertsonek guztientzat dago  
irekita. Interesa duenak,  
lehenago erosi behar du tiketa  
jatetxean bertan.

**Ura-estolderiaren tasa  
ordaintzeko azken  
egunak**

Lasarte-Oriako Udaleko  
zergabilketa bulegoak gogo-  
rarazten du, 2017. urteko lehen  
lauhileko ur-estolderiaren tasa  
borondatez ordaintzeko epearen  
azken eguna, asteazkena,  
uztailaren 17a izango dela.  
Helbideratutako erreziiboak  
ordaintzeko, aurrez aipatutako

data (uztailaren 17a) izango da  
azken eguna. Helbideratu gabeko  
erreziiboak ordaintzeko berriz,  
banku eta aurrezki kutxetan  
egin dezakete, edota [www.lasarte-oria.eus](http://www.lasarte-oria.eus) web orrialdean.

Azken egun igarota,  
ordainketa egin ez dutenek,  
dagokien errekgarekin,  
premiamentuzko prozeduraren  
bitartez exijituko direla  
jakinarazi ute udaletik.

## GUTUNAK

**“Leroy Merlin  
Errekalden ezartzea  
hirigintza interes  
pribatuen neurri-  
neurria egitearen  
adibide garbia da”****Lasarte-Oriako Eguzki**

Lasarte-Oriako Udalak Leroy  
Merlinen saltoki handi bat  
ezarri nahi du Errekaldeko  
industrialdean. Lasarte-Oriako  
industrialde hori Donostiarekin  
partekatzen duenez, tramitatzen  
hasi da bi udalek onartu beharko  
duten Bateratze Plan bat.

"Baina zehatz-mehatz non  
ezarri nahi du saltoki handi  
hori?", galdetuko du irakurleak.  
Izan ere, industrialde hori lerro

bakar batean kokatutako  
hainbat eraikinek osatzen dute  
(Coca-Cola zaharrak, Funeraria  
Vascongadaren tanatorioak,  
Foru Aldundiaren inprentak,  
Hiper Chinak...), eta hor ez  
dago lekurik. Eraikin horien  
atzean malda piko bat baino  
ez dago, nolabait esateko,  
Bigarren Ingurubideari eusteko  
ezponda baino ez. Ba, hain justu,  
malda piko horretantxe ezarri  
nahi du Lasarte-Oriako Udalak  
Leroy Merlinen saltokia.  
Proiektua aurrera ateratzeko,  
malda piko hori kendu egin  
beharko lukete eta, horrekin  
batera, gaur egun bertan hazten  
den harizti ederra, jakina. Baina  
malda kenduta ere, saltokia

nahitaez justu-justu kabituko  
litzateke eta, gainera, zeharo  
zokoratuta geratuko litzateke.  
Beraz, sekulakoak egin beharko  
lirateke inguruko errepideekin  
eta, azken batean, N-1ekin  
fundamentuzko lotura lortzeko,  
non eta berez nahiko zirkulazio  
zaila duen tarte batean.  
Zailtasun horren adibide, gogo-  
ratu orain dela bi bat urtera  
arte, alegia, bidegorria egin  
zuten arte, Errekalde eta Lasarte  
bitartean oinezkontzako biderik  
ere ez zegoela.

Egia esan, Errekaldeko indus-  
trialdeak nahikoa du bere buru-  
arekin, eraikin eta zirkulazio-  
arazo berririk gabe ere.  
Bateratze Plana abiatzeko

dokumentuetan ere argiro  
aitortzen da zirkulazio, aparka-  
leku nahiz errepide-sare nagu-  
siarekiko loturak alderebes  
samarrak dituela; “kaotiko”  
da zehatz-mehatz darabilten  
hitza. Atera kontuak: Errekal-  
deko industrialdeak espaloirik  
ere ez du, ezta ondo-ondoan  
duen Goiegira (eta, ondorioz,  
Lasartera) oinez zuzenean  
joateko biderik ere.

Ezin aipatu gabe utzi beste  
kontu bat: errepideaz beste  
aldean, orain dela urte batzuk  
ateak itxi zituen Oasa fabrikaren  
orubean, Donostiako Udalak  
beste saltoki handi bat eraiki  
nahi du, eta, horretarako, Plan  
Berezi bat tramitatzen hasi da.

Hori gutxi balitz, erreparatu  
diezaiozun ehunka metro  
inguruko panoramari: Urbil  
saltoki ondoan, Mercadona bat  
eta McDonald's bat egin berri  
dituzte; egin berri hauen eta  
Oasa bitartean, Belartza I  
merkataritza-gune handia dago,  
eta malda goraxeago, berriz,  
Belartza II eraiki nahi dute  
(izan ere, iaz de facto eraikitzen  
hasten saiatu ziren, legez kanpo  
saiatu ere).

Gauzak horrela, zertarako  
lurralde-antolaketaz edo  
planifikazioaz hitz egin, baldin  
eta hemen interes pribatuen  
neurri-neurrira egindako  
hirigintza nagusi bada?

## AZOKA TXIKIA

### 1. LANA

#### ESKAERA

Gizonezkoa eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko. Interno bezala lan egiteko ere prest (geriatria laguntzailea), 662421686

Neska arduratsua eskaintzen da pertsona helduak zaindu edo eta garbiketara lanak egiteko. Interna gisa zein orduka. 600767073 / 602144527

Pertsona bat adineko pertsonak edo umeak zaintzeko. Interna bezala ere lan egiteko prest eta baita ospitalean zaintzak egiteko ere. 602314670

### 2. BESTELAKOAK

#### EMAN

Neurri desberdinetako kristalezko poteak oparituko nituzke. 688633631

## ESKELAK

### ESKELAK JARTZEKO:

## Txintxarri erredakzioan

# 943 37 14 48

- ▶ Hileta egunean eskela txintxarri.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Txintxarri paperean 90€
- ▶ Eskela mota guztiak Txintxarri paperean + txintxarri.eus-en: 90 €
- ▶ Eskela mota guztiak paperean: 80 €

Txintxarri: doan eta euskaraz Lasarte-Oriako etxe guztietan

## TELEFONOAK

### UDALAREN TELEFONOAK:

ERREGISTROA: 943 371 629  
 EUSKARAKO ZERBITZUA: 943 376 184  
 KIROLDEGIA: 943 376 182  
 MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA: 943 376 181  
 GIZARTE ZERBITZUAK: 943 376 179  
 KIUB: 943 361 605  
 UDAL EUSKALTEGIA: 943 361 621  
 MUNTTERI AEK: 943 372 863  
**LARRIALDIKO TELEFONOAK:**  
 OSASUN ZENTROA: 943 007 960  
 DYA: 943 464 622  
 GURUTZE GORRIA: 943 363 953  
 UDALTZAINAK: 943 362 442  
 ERTZAINZA: 943 538 840  
 SOS DEIAK: 112

## JAIOTAKOAK

**Oier Arruabarrena Irizar.** Uztailak 2an.  
**Iker Caletch Caceres Muñoz.** Uztailak 6an.  
**Lady Rakel Blanco Reyes.** Uztailak 10ean.

## HILDAKOAK

**Celedonio Arana Saez de Buruaga.** Ekainaren 27an.  
**Águeda Sanchez Sanchez.** Ekainaren 27an.  
**Maria Arin Cincunegui.** Ekainaren 28an.  
**Blasa Hernandez Sanchez.** Ekainaren 29an.  
**Pilar Orbegozo Garro.** Uztailaren 7an.  
**Jose Domingo Urdampilleta Zubitur.** Uztailaren 7an.  
**Alberto Barrado Garcia.** Uztailaren 8an.

## GUARDIAKO FARMAZIAK


Ostirala, 14 DE MIGUEL  
 Larunbata, 15 ORUE  
 Igandea, 16 ORUE  
 Astelehena, 17 LASA  
 Asteartea, 18 GIL  
 Asteazkena, 19 ACHA-ORBEA  
 Osteguna, 20 URBISTONDO

**EGUNEKO FARMAZIAK: 9:00-12:00**  
 ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52  
 ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49  
 DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51  
 LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74  
 GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29  
 URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67  
 GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

Gipuzkoako farmazien eskuko telefonorako 2017ko egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 215800 zenbakira.  
 Gehienezko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera (www.cofgipuzkoa.com).

**GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00**  
 Echeveste Elosegui: Elkano Kalea 9, Hernani/ 943 55 20 87

## MANTTANGORRI HIRIBUSA



\*Abuztuan ez da Manttangorri zerbitzurik egongo

## Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:00	12:10	12:15	12:20
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

txintxarri

www.txintxarri.eus

### PUBLIZITATEA

Ttakun Kultur Elkarte  
 Geltoki kalea 4  
 Tel.: 943 37 14 48 (106)  
 publizitatea@ttakun.eus

### EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkarte  
 Geltoki kalea 4  
 Tel.: 943 37 14 48 (104)  
 WhatsApp: 688 68 35 10  
 txintxarri@txintxarri.eus

### Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua: SS-513/94

ISSN: 1134-0053

Tirada: 7.800 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA  
UDALA

LAGUNTZAILEAK



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Saiburuordetza



Gipuzkoako Foru Aldundia

# AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENA ARRATSALDEA BAINO LEHEN.

## OSTIRALA 14

### AÑORGA Festa

Karmengo jaiak ospatuko dituzte Donostiako Añorga auzoan. Umeen eguna izango da ostirala. Goizean eta arratsaldean haurrentzako jolasekin eta puzgarriekin gozatuko dute. Iluntzean musikak dantza jarriko ditu gaztetxo eta nagusiak. Egunari amaiera emateko, zezen suzkoa egingo dute gauean. **Añorga, 10:00etatik aurrera.**

### USURBIL Jardunaldiak

Jakin Fundazioak eta Udako Euskal Unibertsitateak antolatuta, "Euskara, generoa, jatorria eta klasea gurutzatzen diren lekua" jardunaldiak antolatu dituzte. Zenbait hizlari arituko dira. **Udarregi ikastolako jangela, 09:20etatik aurrera.**

### AMASA-VILLABONA Azoka

Irrintzi elkartearen Garagardo Azokarekin gozatu ahal izango dute Amasa-Villabonara gerturatzen direnek. **Irrintzi elkarte, 18:00etatik aurrera.**

### DONOSTIA Musika

Donostiako Portuko jaien egitarauaren barnean Arkada Social eta Bad Sound System taldeek kontzertua eskainiko dute Donostiako Portuan. **Donostian, 22:30etik aurrera.**

## LARUNBATA 15

### LASARTE-ORIA Musika

Kultura Kalean Zikloaren barnean Donostiako Wha Wha Buga Band taldea arituko da. Pop, rock, blues, funk eta reggae estiloak uztartuko dituzte, modu dibertigarrian. **Okendo plaza, 20:00etan**

### ANDOAIN Festak

Karrika auzoko festak ospatuko dituzte. Goizean, futbol txapelketa, puzgarriak eta apar festa egingo dituzte. Eguerdian sagardo dastaketarekin eta mus txapelketarekin gozatuko dute.



### LASARTE-ORIA Oriako Karmenak.

Karmengo ama birjinaren omenez, Oriako festak ospatuko dituzte igandean. Goizean goizetik haur eta nagusiei zuzendutako ekintzekin gozatu ahal izango dute bertaratuko diren herritarrek. **Igandea 16, Oria auzoan, 10:00etatik aurrera.**

Danborradak girotuko du afaria, eta gauean DJ Tristane jarriko du musika.

**Añorga, 09:00etatik aurrera**

### AÑORGA Festak

Karmenak ospatuko dituzte Donostiako Añorga auzoan. Larunbata **Gaupasa Eguna** izango da, eta goizetik gauera arteko ekintzak egingo dituzte. Balerdi Balerdi, Rock Kam Brom eta DJ Jo Ta Txok girotuko dute gaua. **Añorga, 09:00etatik aurrera.**

### ORIO Gastronomía

Bisigu festa ospatuko dute Orion asteburuan zehar. Eguerdian, sagardo dastaketa eta bisigu lehiaketa egingo dituzte herriko plazan. Marmitakoa dastatu ahal izango da bi eurotan. Bisigu bazkaria eta afaria egingo dituzte. Tiketak aurretik erosi beharko dira 55 eurotan. Arratsaldean KAE ligako X. Estropada jokatu dute Oria ibaian. **Orion, 12:00etatik aurrera.**

### DONOSTIA Musika

Donostiako Portuko jaien egitarauaren barnean, Trakets taldeak erromeria eskainiko du Donostiako kaian ipiniko duten eszenatokian. **Donostian, 22:30etik aurrera.**

## IGANDEA 16

### LASARTE-ORIA Festa

Karmengo ama birjinaren omenez, Oria auzoko jaiak ospatuko dira. 10:00etan trikitilariak eta buruhandiak. 11:00etan haur tailerrak eta 'Brunet' eskulturaren inaugurazioa. 12:00etan meza nagusia. 13:00etan Luntxa. 14:30ean herri bazkaria. 17:00etan gaztelu puzgarriak eta ur jolasak. 17:30ean haur askaria. 18:30 Oriako Sorgin Dantza. 20:00etan Ibai Berriak **Oria, 10:00etatik aurrera.**

### DONOSTIA Musika

Musika Parkean ekimenaren barnean lau kontzertuz gozatu ahal izango da. DJ Mato, Sara Mansilla, John Berkout eta DJ Nordika arduratuko dira iluntzea girotzeaz. **Miramar Jauregia, 19:00etatik aurrera.**

## ASTEARTEA 18

### LASARTE-ORIA Erakusketa

Hilaren 23a bitartean, euskal musika tradizionalen erabilitako musika tresnen erakusketarekin gozatzeko aukera edukiko dute herritarrek. **Antonio Mercero aretoan.**

## ZINEMA

### LASARTE-ORIA

Ostirala: 16:00.  
Larunbata: 16:00.  
Igandea: 16:00.

### OKENDO

**Whiplash (jatorrizko bertsioa)**  
Osteguna: 22:15.

### USURBIL

### URBIL

### Baby Driver

Ostirala: 15:45,  
17:50, 20:00,  
22:40, 00:55.  
Larunbata: 15:45,  
17:50, 20:00,  
22:40, 00:55.  
Igandea: 15:45,  
17:50, 20:00,  
22:40.

**Capitan Caizonzillos: su primer pelicula**

Ostirala: 16:00.  
Larunbata: 16:00.  
Igandea: 16:00.

### Cars 3

Ostirala: 16:00,  
17:00, 18:00,  
19:20, 20:20,  
21:45, 00:10.  
Larunbata: 16:00,  
17:00, 18:00,  
19:20, 20:20,  
21:45, 00:10.  
Igandea: 16:00,  
17:00, 18:00,  
19:20, 20:20,  
21:45.

### Gru 3: mi villano favorito

Ostirala: 16:00,  
17:00, 18:20,  
19:00, 20:15,  
22:15, 00:15.  
Larunbata: 16:00,  
17:00, 18:20,

19:00, 20:15,  
22:15, 00:15.  
Igandea: 16:00,  
17:00, 18:20,  
19:00, 20:15,  
22:15.

### La Guerra del Planeta de los Simios

Ostirala: 16:20,  
18:00, 19:10,  
20:20, 22:00,  
23:20.  
Larunbata: 16:20,  
18:00, 19:10,  
20:20, 22:00,  
23:20.  
Igandea: 16:20,  
18:00, 19:10,  
20:20, 22:00.

### La Momia

Ostirala: 22:20,  
00:35.  
Larunbata: 22:20,

00:35.  
Igandea: 22:20.

### Llega de noche

Ostirala: 00:50.  
Larunbata: 00:50.

### Señor, dame paciencia

Ostirala: 15:50,  
18:05, 20:50,  
22:50, 00:50.  
Larunbata: 15:50,  
18:05, 20:50,  
22:50, 00:50.  
Igandea: 15:50,  
18:05, 20:50,  
22:50.

### Wonder Woman

Ostirala: 21:00,  
23:50.  
Larunbata: 21:00,  
23:50.  
Igandea: 21:00.



### LABURPENA

### Whiplash

**Zuz.:** Damien Chazelle. **Herr.:** AEB (2014). **Gidoia:** Damien Chazelle. **Aktoreak:** Miles Teller, JK Simmons, Mellisa Benoist, Paul Reiser, Austin Stowell. **Iraupena:** 103 minutu

## Ametsen ordaina

Andrew Neiman (Miles Teller) anbizioz beteriko jazz bateria-jotzaile gaztea da. Bere helburua da ekialdeko kostaldeko musika kontserbatorioan arrakasta izatea. Bere aitaren ibilbide literarioak jasotako porrota dela eta, handitasun eldarnioak ditu. Terrence Fletcher (JK Simmons) irakaslea ezaguna da bere abilezia eta irakaskuntza metodo zorrotzengatik, eta bera da kontserbatorioko jazz talde oneneko zuzendaria da. Fletcherrek taldeko kide izateko Andrew aukeratzean,

gaztearen bizitza irauli egingo da.

Musika zineman bereizi den zuzendaria da Damien Chazelle. *Whiplash*-ek Bost izendapen eta hiru sari irabazi zituen Academy Awards arrakastatsuetan –Oscar sarietn –. Dena den, onespren handiagoga lortu du bere hurrengo filmak: *La La Land*-ek. 14 izendapen eskuratzeaz gain, sei irabazi zituen. Tartean, zuzendari onenari emandako saria.

Miles Teller aktore gaztea ezaguna da *Fantastic Four* edo *Divergent* bezalako lanengatik.

*Barruan duzun artista ateratzeko garaia da*

# Zatoz eta parte hartu SANTA ANAKO PARODIAN

Entseguak: Uztailaren 17tik 21era, 18:30etik 20:30era Kultur Etxean

943 37 14 48  
kultura@ttakun.eus




USURBILGO  
LANBIDE  
ESKOLA

CIFP USURBIL LHII

943 36 46 00

www.lhusurbil.eus

## MATRIKULA EPEA ZABALIK uztailaren 13tik 19ra (biak barne)

Fabrikazio mekanikoa



Elektrizitate-elektronika



Administrazioa



Produktzio zerbitzu  
eta mantenimendua



Energia eta ura



**Erdi eta goi mailako zikloak  
A, B eta D Ereduak**



### MERKEALDIA

Erreflexuen aurkako  
**2 mō betaurreko**  
graduatu

**77€**

aurreko prezioa: 97€

[www.multiopticasgipuzkoa.com](http://www.multiopticasgipuzkoa.com)

ARRASATE • BEASAIN • BERGARA • DONOSTIA  
ERRETERIA • EIBAR • IRUN • ORDIZIA • TOLOSA

Eskaintza baliagarria 2017/08/31 arte. Kontsulta itzazu zure optikan kanpainaren ezaugarriak. Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabili.



Gure betaurreko  
guztia**k bilduma**  
berrietako**k dira**

Kale Nagusia, 15  
Tel.: 943 37 74 55  
**LASARTE**

**MULTIOPTICAS**  
lehena zerbitzu optikoetan